



IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA

2016-2017 IKASTURTERAKO

BATXILERGOAREN ANTOLAKUNTZARI

BURUZKOA

Joan den astelehenean, apirilak 4, EHAAAn argitaratu zen 2016ko martxoaren 9ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Agindu horren bidez, egutegi komuna ezarri da 2016-2017 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuetan Batxilergoko ikasleak onartzeko eskabideak aurkezteko, eta, era berean, jarraibideak onartu dira ikasleok onartzeko eta hezkuntza-maila horretan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztietan matrikulatzeko.

Agindu horren arabera, prozesua maiatzaren 2an hasiko da eta matrikula egiteko ohiko epea ekainaren 20tik uztailaren 6ra izango da. Hori dela eta, Batxilergoaren antolakuntza errazteko, Hezkuntza Sailburuordetzak dokumentu hau ikastetxeetara helarazten du.

Hala eta guztiz ere, prozesuan zehar edozein zalantza sortzen bazaizue, Hezkuntza Sailburuordetza hau entzuteko eta erantzuteko prest duzue.

Gasteizen, 2016ko apirilaren 7an.

Arantza Aurrekoetxea Bilbao
Hezkuntza Sailburuordea



2016-2017 IKASTURTERAKO 1. BATXILERGOKO ANTOLAKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

IKASGAIEN ATALAK

II Eranskinean agertzen den taula hobeto irakurtzeko eta interpretatzeko, Batxilergoko ikasgaiak ataletan antolatu dira (A, B, C, D, E eta F). Atalka antolatu ditugu, 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko lehen mailako antolakuntza ahalik eta argien azaltzeko bakar-bakarrik.

ASTEKO ORDUTEGIA

2016-2017 ikasturteko Batxilergoko lehen mailako ordutegia **34 ordutakoa** izango da.

GUTXIENEO ORDUTEGIA

Ikastetxeek, curriculuma eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, Batxilergoko ikasgaien ordutegiak ezar ditzakete, **beti ere ikasgaien gutxieneko ordutegia errespetatuz.**

A, B eta C ataletako ikasgaien gutxieneko ordutegia 3 ordutakoa izango da. **Salbuespen** bezala, **Gorputz Hezkuntza** ikasgaiaren gutxieneko ordutegia **2 ordutakoa** izango da.

D atalean dauden ikasgaien gutxieneko ordutegia 2 ordutakoa izango da.

Ez dago gutxieneko ordutegirik E edo F ataletan dauden ikasgaietarako, atal horiek derrigorrezkoak ez direlako.



ERREFERENTZIAZKO ORDUTEGIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeei erreferentziazko ordutegia ematen die. Ikastetxeek askatasuna daukate ordutegi hori ezarri ala ez erabakitzeko.

A ATALEKO IKASGAIAK

A ataleko ikasgaiak hauek dira:

- Euskara eta Literatura I
- Gaztelania eta Literatura I
- Atzerriko Lehen Hizkuntza I
- Filosofia
- Gorputz Hezkuntza

Ikasgai hauek **derrigorrezkoak dira ikasle guztientzat**, kontutan hartu gabe Batxilergoko zer modalitate egiten ari den.

B ATALEKO IKASGAIAK

Ikasle bakoitzak bere Batxilergo modalitatearekin lotutako ikasgaia egin beharko du.

- Zientzietako Batxilergoa aukeratu duenak **Matematika I** egingo du.
- Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa aukeratu duenak **Latin I** egingo du Giza Zientzietako bidea egiten badu, eta **Gizarte Zientzietako Aplikatutako Matematika I** egingo du Gizarte Zientzietako bidea egiten badu.
- Arteetako Batxilergoa aukeratu duenak **Artearen Oinarriak I** egingo du.



C ATALEKO IKASGAIAK

Aukeratutako Batxilergoko modalitatea kontutan hartuta, ikasleek atal honetako **bi ikasgai** egin beharko dute. Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, beren hezkuntza-eskaintza egingo dute. Hori dela eta, atal honetan agertzen diren ikasgai guztiak eskain ditzakete, edo bakar-bakarrik beren Hezkuntza Proiektuari eta beren Eskola Komunitateari hobeto erantzuten dieten bi ikasgaiak.

Zientzietako Batxilergoa:

- Biologia eta Geologia
- Marrazketa Teknikoa I
- Fisika eta Kimika

Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa:

- Ekonomia
- Greziera I
- Mundu Garaikidearen Historia
- Literatura Unibertsala

Arteetako Batxilergoa:

- Ikus-entzunezkoen Kultura I
- Mundu Garaikidearen Historia
- Literatura Unibertsala

D ATALEKO IKASGAIAK

Atal honetako ikasgaiak hauek dira:

- Musika Azterketa I
- Anatomia Aplikatua
- Kultura Zientifikoa
- Marrazketa Artistikoa I
- Marrazketa Teknikoa I (baldin ez badute hartu C atalean aukeratutako ikasgaien artean)



- Musikaren Hizkuntza eta Praktika
- Erlijioa*
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza I
- Teknologia Industrial I
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak I
- Bolumena
- Ikastetxean Batxilergo ikasleak aukeratu ez duen B edo C ataletako ikasgai bat, beti ere Batxilergoko modalitate hori ikastetxean onartuta badago. Hau da:

B atala

- Matematika I
- Latina I
- Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I
- Artearen Oinarriak I

C atala

- Biologia eta Geologia
- Marraketa Teknikoa I
- Fisika eta Kimika
- Ekonomia
- Greziera I
- Mundu Garaikidearen Historia
- Literatura Unibertsala
- Ikus-entzunezkoen Kultura I

Ikasle bakoitzak D ataleko **gutxienez bi ikasgai eta gehienez hiru** egin beharko ditu. Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, beren hezkuntza-eskaintza egingo dute. Hori dela eta, atal honetan agertzen diren ikasgai guztiak eskain ditzakete, edo bakar-bakarrik beren Hezkuntza Proiektuari eta beren Eskola Komunitateari hobeto erantzuten dieten ikasgaiak. Ikastetxeek ikasleei orientazioa emango diete ikasleen beharrei eta geroago egingo duten ikasketarako egokienak diren ikasgaiak aukeratzeko.



*Ikastetxeek Erlijioa ikasgaia Batxilergoko maila bakar batean eskainiko dute, lehenengo edo bigarren mailen artean aukeratuz. Erlijioa ikasgaia derrigorrez eskaini beharko da eta, atal honetan agertzen diren beste ikasgaiak bezala, gutxienez 15 ikasle izan beharko du ikastetxe zehatz batean emateko.

E ATALEKO IKASGAIAK

Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, ikasgai propioen bat eskaini ahalko dute. Atal honetan agertzen diren ikasgaien eskaintza ez da derrigorrezkoa, baina aukera zabaltzen da, ikastetxe ugarik orain arte eman duten aukerako ikasgai propioen eskaintza mantentzea eskatu baitute. Hauek dira:

- Euskal Herriko Historia
- Argazkigintza
- Pintura
- Musika-informatika
- Aljebra eta Kalkulua
- Elektronika
- Laborategi-teknikak
- Gizarte-antropologia
- Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
- Zuzenbidea
- Euskal Literatura eta Espainiar Literatura XX. Mendean
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimendutako ikastetxeko beste ikasgai propioak. Ikasturte bakoitzean baimen berezia eskatu behar da. 2016-2017 ikasturterako baimena apirilaren 26a baino lehen eskatu behar da.

F ATALEKO IKASGAIAK

Horrela erabakitzen duten ikastetxeek Batxilergoan Tutoretza eskaini ahal izango dute.



BATXILERGOKO 2. MAILARA IGOTZEKO KONTUTAN HARTZEKO IKASGAIAK

Bigarren mailara igotzeko kontuan hartuko dira soilik ikasleak **gutxienez egin behar dituen ikasgaiak**, hautatutako Batxilergoko modalitatearen arabera. Horrek esan nahi du mailaz igotzeko bakar-bakarrik **A, B eta C ataletako ikasgaiak eta D ataletako bi ikasgai** kontutan hartuko direla. E eta F ataletako ikasgaiak, aldiz, ez dira kontutan hartuko mailaz igotzeko.



I ERANSKINA

BATXILERGOKO IKASGAIEN ARTEKO JARRAITASUNA

Batxilergoko 1. maila	Batxilergoko 2. maila
Euskara eta Literatura I	Euskara eta Literatura II
Gaztelania eta Literatura I	Gaztelania eta Literatura II
Matematika I	Matematika II
Atzerriko Lehen Hizkuntza I	Atzerriko Lehen Hizkuntza II
Marrazketa Teknikoa I	Marrazketa Teknikoa II
Latina I	Latina II
Greziera I	Greziera II
Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika I	Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II
Artearen Oinarriak I	Artearen Oinarriak II
Ikus-entzunezko Kultura I	Ikus-entzunezko Kultura II
Musika-azterketa I	Musika-azterketa II
Marrazketa Artistikoa I	Marrazketa Artistikoa II
Atzerriko Bigarren Hizkuntza I	Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
Industria Teknologia I	Industria Teknologia II
Informazio eta Komunikazio Teknologia I	Informazio eta Komunikazio Teknologia II
Fisika eta Kimika	Fisika/Kimika
Biologia eta Geologia	Biologia/Geologia

II ERANSKINA

2016-2017 IKASTURTERAKO 1. BATXILERGOKO ANTOLAKUNTZA

LABURPEN-TAULA

Atalak	Gutxieneko ordutegia	Erreferentziako ordutegia	ZIENTZIETAKO MODALITATEA	GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO MODALITATEA		ARTEETAKO MODALITATEA		Derrigorrezko ikasgaien atalak	Mailaz igotzeko kontutan hartzeko ikasgaiak		
A	3	3	Euskara eta Literatura I							√	√
	3	3	Gaztelania eta Literatura I								√
	3	3	Atzerriko Lehen Hizkuntza I								√
	3	3	Filosofia								√
	2	2	Gorputz Hezkuntza								√
B	3	4	Matematika I	Latina I	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I	Artearen Oinarriak I		√	√		
C	6 (2X3h)	8 (2x4h)	2 aukeratu	Biologia eta Geologia	2 aukeratu	Ekonomia	2 aukeratu	Ikus-entzunezko Kultura I	√	2 √	
				Marrazketa Teknikoa I		Greziera I		Mundu Garaikidearen Historia			
				Fisika eta Kimika		Mundu Garaikidearen Historia		Literatura Unibertsala			
				Literatura Unibertsala		Literatura Unibertsala					

D	4 (2x2h)	8 (2x4h)	2 edo 3 aukeratu	Musika Azterketa I	v	2 v
				Anatomia Aplikatua		
				Kultura Zientifikoa		
				Marrazketa Artistikoa I		
				Marrazketa Teknikoa I		
				Musikaren Hizkuntza eta Praktika		
				Erljioa		
				Atzerriko Bigarren Hizkuntza I		
				Teknologia Industrial I		
				Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia I		
				Bolumena		
				Ikasleak ikasi ez duen B edo C ataletako ikasgai bat		
				E		
Argazkigintza						
Pintura						
Musika-informatika						
Aljebra eta Kalkulua						
Elektronika						
Laborategi-teknikak						
Gizarte-antropologia						
Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan						
Zuzenbidea						
Euskal Literatura eta Espainiar Literatura XX. Mendean						
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimendutako ikastetxeko beste ikasgai propioak ¹						
F				Tutoretza		
Guz	34	34			4	10

¹ Ikasturte bakoitzean baimen berezia eskatu behar da. 2016-2017 ikasturterako baimena apirilaren 26a baino lehen eskatu behar da.



2016-2017 IKASTURTERAKO 2. BATXILERGOKO ANTOLAKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

IKASGAIEN ATALAK

II Eranskinean agertzen den taula hobeto irakurtzeko eta interpretatzeko, Batxilergoko ikasgaiak ataletan antolatu dira (A, B, C, D, E eta F). Atalka antolatu ditugu, 2016-2017 ikasturteko Batxilergoko bigarren mailako antolakuntza ahalik eta argien azaltzeko bakar-bakarrik.

ASTEKO ORDUTEGIA

2016-2017 ikasturteko Batxilergoko bigarren mailako ordutegia **33 ordutakoa** izango da.

GUTXIENEO ORDUTEGIA

Ikastetxeek, curriculuma eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, Batxilergoko ikasgaien ordutegiak ezar ditzakete, **beti ere ikasgaien gutxieneko ordutegia errespetatuz.**

A, B eta C ataletako ikasgaien gutxieneko ordutegia **3 ordutakoa** izango da.

D atalean dauden ikasgaien gutxieneko ordutegia **2 ordutakoa** izango da.

Ez dago gutxieneko ordutegirik E edo F ataletan dauden ikasgaietarako, atal horiek derrigorrezkoak ez direlako.



ERREFERENTZIAZKO ORDUTEGIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxeei erreferentziazko ordutegia ematen die. Ikastetxeek askatasuna daukate ordutegi hori ezarri ala ez erabakitzeko.

A ATALEKO IKASGAIAK

A ataleko ikasgaiak hauek dira:

- Euskara eta Literatura II
- Gaztelania eta Literatura II
- Atzerriko Lehen Hizkuntza II
- Espainiako Historia

Ikasgai hauek **derrigorrezkoak dira ikasle guztientzat**, kontutan hartu gabe zer Batxilergo modalitate egiten ari den.

B ATALEKO IKASGAIAK

Ikasle bakoitzak bere Batxilergo modalitatearekin lotutako ikasgaia egin beharko du.

- Zientzietako Batxilergoa aukeratu duenak **Matematika II** egingo du.
- Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa aukeratu duenak **Latin II** egingo du Giza Zientzietako bidea egiten badu, eta **Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II** egingo du Gizarte Zientzietako bidea egiten badu.
- Arteetako Batxilergoa aukeratu duenak **Artearen Oinarriak II** egingo du.



C ATALEKO IKASGAIAK

Aukeratutako Batxilergoko modalitatea kontutan hartuta, ikasleek atal honetako **bi ikasgai** egin beharko dute. Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, beren hezkuntza-eskaintza egingo dute. Hori dela eta, atal honetan agertzen diren ikasgai guztiak eskain ditzakete, edo bakar-bakarrik beren Hezkuntza Proiektuari eta beren Eskola Komunitateari hobeto erantzuten dieten bi ikasgaiak.

Zientzietako Batxilergoa:

- Biologia
- Marrazketa Teknikoa II
- Fisika
- Geologia
- Kimika

Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoa:

- Enpresa Ekonomia
- Geografia
- Greziera II
- Artearen Historia
- Filosofiaren Historia

Arteetako Batxilergoa:

- Arte Eszenikoak
- Ikus-entzunezkoen Kultura II
- Diseinua

D ATALEKO IKASGAIAK

D ataleko ikasgaiak hauek dira:

- Musika Azterketa II
- Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
- Marrazketa Artistikoa II
- Marrazketa Teknikoa II (baldin ez badute hartu C atalean aukeratutako ikasgaien artean)



- Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak
- Filosofiaren Historia (baldin ez badute hartu C atalean aukeratutako ikasgaien artean)
- Musikaren eta Dantzaren Historia
- Irudia eta Soinua
- Psikologia
- Erlijioa*
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
- Adierazpen Grafiko Plastikoaren Teknikak
- Teknologia Industrial II
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak II
- Ikasleak aukeratu ez duen B edo C ataletako ikasgai bat, beti ere Batxilergoko modalitate hori ikastetxean onartuta badago. Hau da:

B atala

- Matematika II
- Latina II
- Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II
- Artearen Oinarriak II

C atala

- Biologia
- Marraketa Teknikoa II
- Fisika
- Geologia
- Kimika
- Enpresa Ekonomia
- Geografia
- Greziera II
- Artearen Historia
- Filosofiaren Historia
- Arte Eszenikoak
- Ikus-entzunezkoen Kultura II
- Diseinua

Ikasle bakoitzak D ataletako **gutxienez bi ikasgai eta gehienez hiru** egin beharko ditu. Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten



autonomiaren barruan, beren hezkuntza-eskaintza egingo dute. Hori dela eta, atal honetan agertzen diren ikasgai guztiak eskaini ditzakete, edo bakar-bakarrik beren Hezkuntza Proiektuari eta beren Eskola Komunitateari hobeto erantzuten dieten ikasgaiak. Ikastetxeek ikasleei orientazioa emango diete ikasleen beharrei eta geroago egingo duten ikasketarako egokienak diren ikasgaiak aukeratzeko.

*Ikastetxeek Erlijioa ikasgaia Batxilergoko maila bakar batean eskainiko dute, lehenengo edo bigarren mailen artean aukeratuz. Erlijioa ikasgaia derrigorrez eskaini beharko da eta, atal honetan agertzen diren beste ikasgaiak bezala, gutxienez 15 ikasle izan beharko du ikastetxe zehatz batean emateko.

E ATALEKO IKASGAIAK

Ikastetxeek, curriculum eta antolamendua ezartzeko duten autonomiaren barruan, ikasgai propioen bat eskaini ahalko dute. Atal honetan agertzen diren ikasgaien eskaintza ez da derrigorrezkoa, baina aukera zabaltzen da, ikastetxe ugarik orain arte eman duten aukerako ikasgai propioen eskaintza mantentzea eskatu baitute. Hauek dira:

- Euskal Herriko Historia
- Ordenagailuz Lagundutako Marrazketa eta Diseinua
- Argazkigintza
- Pintura
- Musika-informatika
- Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna
- Aljebra eta Kalkulua
- Elektronika
- Giza Fisiologia eta Anatomia
- Mekanika
- Laborategi-teknikak
- Gizarte-antropologia
- Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
- Zuzenbidea
- Euskal Literatura eta Espainiar Literatura XX. Mendean



- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimendutako ikastetxeko beste ikasgai propioak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimendutako ikastetxeko beste ikasgai propioak. Ikasturte bakoitzean baimen berezia eskatu behar da. 2016-2017 ikasturterako baimena apirilaren 26a baino lehen eskatu behar da.

F ATALEKO IKASGAIAK

Horrela erabakitzen duten ikastetxeek Batxilergoan Tutoretza eskaini ahal izango dute.

TITULAZIOA LORTZEKO KONTUTAN HARTZEKO IKASGAIAK

Bigarren mailara igotzeko kontuan hartuko dira soilik ikasleak **gutxienez egin behar dituen ikasgaiak**, hautatutako Batxilergoko modalitatearen arabera. Horrek esan nahi du mailaz igotzeko bakar-bakarrik **A, B eta C ataletako ikasgaiak eta D ataletako bi ikasgai** kontutan hartuko direla. E eta F ataletako ikasgaiak, aldiz, ez dira kontutan hartuko mailaz igotzeko.



I ERANSKINA

BATXILERGOKO IKASGAIEN ARTEKO JARRAITASUNA

Batxilergoko 1. maila	Batxilergoko 2. maila
Euskara eta Literatura I	Euskara eta Literatura II
Gaztelania eta Literatura I	Gaztelania eta Literatura II
Matematika I	Matematika II
Atzerriko Lehen Hizkuntza I	Atzerriko Lehen Hizkuntza II
Marrazketa Teknikoa I	Marrazketa Teknikoa II
Latina I	Latina II
Greziara I	Greziara II
Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II
Artearen Oinarriak I	Artearen Oinarriak II
Ikus-entzunezko Kultura I	Ikus-entzunezko Kultura II
Musika-azterketa I	Musika-azterketa II
Marrazketa Artistikoa I	Marrazketa Artistikoa II
Atzerriko Bigarren Hizkuntza I	Atzerriko Bigarren Hizkuntza II
Industria Teknologia I	Industria Teknologia II
Informazio eta Komunikazio Teknologiak I	Informazio eta Komunikazio Teknologiak II
Fisika eta Kimika	Fisika/Kimika
Biologia eta Geologia	Biologia/Geologia

II ERANSKINA

2016-2017 IKASTURTERAKO 2. BATXILERGOKO ANTOLAKUNTZA

LABURPEN-TAULA

Atalak	Gutxieneko ordutegia	Erreferentziak o ordutegia	ZIENTZIETAKO MODALITATEA	GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO MODALITATEA		ARTEETAKO MODALITATEA		Derrigorrezko ikasgaien atalak	Mailaz igotzeko kontutan hartzeko ikasgaiak	
A	3	3			Euskara eta Literatura II		√	√		
	3	3			Gaztelania eta Literatura II			√		
	3	3			Atzerriko Lehen Hizkuntza II			√		
	3	4			Espainiako Historia			√		
B	3	4	Matematika II	Latina II	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II	Artearen Oinarriak II		√	√	
C	6 (2X3h)	8 (2x4h)	2 aukeratu	Biologia	2 aukeratu	Enpresa Ekonomia	2 aukeratu	Arte Eszenikoak	√	2 √
				Marrazketa II		Geografia		Ikus-entzunezko Kultura II		
				Fisika		Greziera II				
				Geologia		Artearen Historia				
				Kimika		Filosofiaren Historia				

D	4 (2x2h)	8 (2x4h)	2 edo 3 aukeratu	Musika Azterketa II	v	2 v
				Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak		
				Marrazketa Artistikoa II		
				Marrazketa Teknikoa II		
				Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak		
				Filosofiaren Historia		
				Musikaren eta Dantzaren Historia		
				Irudia eta Soinua		
				Psikologia		
				Erljioa		
				Atzerriko Bigarren Hizkuntza II		
				Adierazpen Grafiko Plastikoaren Teknikak		
				Teknologia Industrial II		
				Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak II		
				Ikasleak ikasi ez duen B edo C ataletako ikasgai bat		
E				Euskal Herriko Historia		
				Ordenagailuz Lagundutako Marrazketa eta Diseinua		
				Argazkigintza		
				Pintura		
				Musika-informatika		
				Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna		
				Aljebra eta Kalkulua		
				Elektronika		
				Giza Fisiologia eta Anatomia		
				Mekanika		
				Laborategi-teknikak		
				Gizarte-antropologia		
				Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan		
				Zuzenbidea		
				Euskal Literatura eta Espainiar Literatura XX. Mendean		
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimendutako ikastetxeko beste ikasgai propioak ²						
F				Tutoretza		
Guz	33	33			4	9

² Ikasturte bakoitzean baimen berezia eskatu behar da. 2016-2017 ikasturterako baimena apirilaren 26a baino lehen eskatu behar da.